

ABUZTUAK 15, ASKATASUNAREN EGUNA

Pasai Donibane (2006.8.15)

Gaur, Abuztuak hamabost, garrantzi politiko handiko eguna ospatzen ari gara. Duela 1228 urte, euskaldunok, inori baimenik eskatu gabe, herri aske izateko erabakia hartu genuen. Garaipen militarra erdietsita, kanpoko erasotzaileak etxerako bidean jarri genituen.

Garaipen militar hori gabe, nekez uler daiteke, handik urte gutxi barru, 824. urtean hain zuzen, euskal herriak, nazio batek lor dezaken antolakuntza maila gorenera iristea, hau da: estatua, Nabarrako estatua osatzea.

Gogoan izatekoa da, 8 mendez nazio subirano, estatu gisa irauteak ekarri diola hein handi batean herri honi bizirik irauteko gaitasuna, hori gabe, historia hori guztia gabe, zaila da imajinatzea, orain, gaur, hemen, gu elkaturik egotea.

Horrela 2006. urtera heldu gara eta herri gisa bizirik mantendu bagara ere, herri honek ez du ikusten, ez du garatzen bere ahalmen politiko osoa.

Esan gabe doa, gure ahalmen politiko osoa garatu gabe, besteen jostailu bihurtuta, desagertzeko zorian gaudela. Baina nork eragozten du gaur egun herri honen ahalmen politiko osoa berriro martxan jartzea?

Gure lurraldean ari diren partido politiko eta sindikatuak, guztiak eta salbuespenik gabe, traba, oztopo, harresi ikaragarriak dira egiazko nazio estrategia bat sortu eta indarrean jartzeko.

Independentzia berreskuratzeko ahalegina benetakoa bada, hasera haseratik eta zalantzarik gabe, okupatzaileen logikatik irten behar dugu. Eta zer dago etsaiaren logika instituzional biolento, zapaltzailetik kanpo? Nafar instituzioa, Nafar legitimitatea, Nafar estatua.

Baina ez dute urrats hori ematen eta ez dugu zantzurik ikusten emango dutenik ere.

Halere, egoera larriak ez gaitu itsutu behar. Ezin dugu inolaz ere amore eman, nahiz eta baldintza zailenetan aritu. Paktismoa, kosoberania, euskal herriari hitza ematearena,... amarruak baino ez dira, etsaiaren logika, etsaiaren hitzak bertakoen ahotsetan. Orain eta hemen estatua martxan jartzea ezinbesteko lehentasun estrategikoa da. Gainerako eztabaidak behin ta berriz porrotera garamatzaten hitz zuriak dira, kolaboratzaileen bazka.

Ez espainiak eta ez frantziak ere ez digute guri inongo eta inolako eskubiderik aitortu behar.

Espainiak eta frantziak, espainiar eta frantziarren eskubideak aitortu eta babestu behar dituzten moduan, Nafar legeak, Nafar justiziak, Nafar estatuak babestu behar ditu Nafarren eskubideak. Hori da askatasuna, hori da demokrazia, hori da Nafar nazioaren hitza errespetatzea.

Gainerakoa badakigu zer den, okupazioa legitimatzea, gu integratzeko (ala desintegratzeko gauza bera baita). Zenbat eta gehiago espainiaren sisteman integratu orduan eta gehiago nazioa desintegratu.

Lan egin dezagun gure estatu propioa ber-osatzearen alde, gure legeak ezartzen saia gaitzen; gure arteko gobernu probisional osoa dezagun, arazo eta eztabaidak, gure instituzio propioetan bideratu ditzagun..., hondamenditik aterako gaituen energia politikoa erakus dezagun.

Beraz, hauxe da guk esan nahi dioguna herri honi: ez espainiak ez frantziak ez digute ezer emango. Ez digute ezer eman behar. Gure antolakuntzak, gure erabakiak, gure indarrak ekarri behar du okupazio egoera gainditzea eta askatasun nazionala erdiestea. Honela eta ez beste inola, inoiz ikusi ahalko dugu herri honetan demokraziarako lehen urratsa, espainia eta frantzia euskal herritik, nafarroa osotik alde egitea; indarrak ondo bideraturik soilik garaitu dezakegu zapaltzen gaituen biolentzia.

Eta hori da politika; indarrak ondo bideratzea; helburuak finkatzea norberaren indarraren arabera, tremendismorik gabe; zuhur, zuzen. Hori horrela, gure sasoiaren ispilu izango da egoera politikoa. Egoera politikoa, indarren harremanak mugatzen duelako.

Honek guztiak lotura zuzena du gaurko egun batez gertatu zenarekin. Orreagako gudualdia izan zelako Nafarroako Erresumaren, gure estatuaren sorreraren gertakari kualitatibo ezinbestekoa.

Saiatu dira gutxiesten Nafar herriaren gaitasuna eta askok jarraitzen dute bide beretik; artzai setati batzuk, gauez, harriak pilaturik mendi kaxkoetan, ejertzito baten atzekaldea erasotu eta gero arinki mendiz mendi ihes egin zuten. Horrelako eraso baten aurka aritzeko ez omen zegoen etsaia prestatu, eta euskaldunak berriro bere bizitza atzeratu eta basatira itzuli ziren.

Gure buruaren jabe garen euskaldunok bestelako irakurketa egiten dugu: soilik oso ondo antolaturik zegoen herriak garaitu zezakeen orduko europako armadarik indartsuena. Armak behar ziren, antolakuntza, estrategia,... Eta helburu argi bat.

Herri zahar honek erakutsi zion europari bazuela horrelakorik. Urte gutxi barru sortuko zen Iruñeako erresuma, gerora Nafarroako erresuma izena hartu zuen estatu politikoa, Europar estatua. Europa osoan ezaguna, harreman diplomatiko normalizatuekin, legearekin, antolakuntzarekin. Gaskoinia, Biarnoa, Goi Aragoi, Errioxa, Euskal herri osoa batu duen estatu bakarra. Geuretzat, propioztat onartu dugun estatu bakarra.

Baina estatu hori okupatu zuten eta historiak eman behar zigun garapena bortxatu. Estatu okupatu bat gara, eta ez estaturik gabeko nazio bat. Estatu propioaren defentsa da, garai hartako euskaldunekin lotzen gaituen harrietako bat eta haria ez da eten.

XXI. Mendeko Nafarroak, data hau, Abuztuaren 15a, bihotzean eta memoria historikoan ezezik, egutegian egun seinalatu bihurtu behar dugu, eta behar den moduan, solemnitare osoz, askatasun nazionalaren eguna instituzionalizatu, hedatu eta eragin politikorako moldatu.

Inoiz, seguru, egun handia iritsiko da, baina ordura arte bezala, gerora ere Orreaga gogoan izango dugu. Orreaga delako guretzat lehendabiziko ikasgaia.

Orreagan dugulako sorrera, Orreaga delako abiapuntua, eta Orreagan idatzi genituelako gure konstituzioaren lehen hitzak, odolez idatzitako hitzak.

Lagunak, guretzat ez dago soluzio magikorik, zerutik ez da jausiko euria besterik, gure borrokek askatuko gaitu.

GORA NAFARROA OSOA !

